



'UDA GAZTEA' EKITALDIZ BLAI GAZTEENTZAT

Hilaren 30ean hasita, uztaila osoan txangoak, tailerrak, filmak,... izango dira aukeran, Topaguneak antolatuta 3



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

**Ostirala
2009-06-26**

VIIURTEA 1.738.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Liburuxkak 5 euroren truke eskuratu ahalko da; atzo aurkeztu zuen talde bultzatzaileak. R. CALVO

URTEBETEZ EUSKAL KANTUGINTZA HERRIAN SUSTATUZ

TOLOSA Tolosa Kantarik urtebete beteko du bihar; 100 kanturen letrak biltzen dituen liburuxka kaleratu dute eta bazkaria egingo dute bihar 6

Hitza Txapelketako irabazleak erabakiko dira gaur eta bihar

TOLOSALDEA Txikienek Albizturren gaur jokatu dute; handienek, berriz, bihar Tolosan 5

Tolosandblues jaialdian, lau talderen zuzenekoak gaur eta bihar

TOLOSA Atzo ekin zioten jaialdiari Raimundo Amador eta Naco Goñiren eskutik 4



Atzo gogor aritu ziren lanean; bihar Mallorcara doaz 4. mailako gazteak. A. IMAZ

Amazabalgo ikasleak errekak garbitzen aritu dira

LEITZA Leitzarar eta Erasote errekak garbitzen aritzeagatik laguntza jaso dute ikasbidiarako 7



Lan talde berriko partaideak atzo elkartu ziren Usabalen. E. EZBIZA

Usabal kiroldegiko jarraipena egiteko lan talde berria, prest

TOLOSA Taldearen helburua bazkideen ahotsa izatea da; iaiz jarri zuten martxan ekimena 3

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Aurten Villabonatik joan gaitzke Usabalera

Aurten azkenean berri on bat heldu zaigu. Uda dator eta Villabonako abonatuak Usabalgo instalazioak erabiltzeko azken bi urtetan jarri duten debekua mantenduko zutelara uste nuen. Behin baino gehiagotan kejaratu ginen iaz, ni egunkari honetan bertan.

Zein izan da nire sorpresa aurten guretzat lekua badagoela enteratu naizela. Nonbait, instalazioak zabaldu dituztenez orain lekua nahikoa dago Villabonako Olaederrako sartu ahal izateko. Beno, inoiz ez da berandu eta espero dudana bakarria da aurrerantzean neurri hau mantentzea. Milesker.

Villabonako Olaederrako abonatu bat.**Barrakak garestiegiak dira**

Sanjoanetan ere barrakak jartzten dituzte Geltokin. Nik bi seme ditut eta oporretan daudenez arratsalde pasa harea joan nintzen beraiekin. Harrituta geratu nintzen prezioa ikusteak. Lau bidaiengatik sei euro ordaindu behar izan nituen, bi minutu eskas egiteko, beraz, 1.000 pezeta.

Barrakeroari komentatu nion garesti iruditzen zitzaizadala eta berak esplikatu zidan udalek oso garesti kobratzen dietela bertan egotea eta, ondorioz, benefizioa atera nahi badute prezio horiek jarri behar dituztela. Gainera, kexu ziren aurten oso jende gutxi ibili delako, promozio gutxi-edo egin zaiela.

Nire eskaera adostasun batera hel daitezela da, azkenean, beti bezala, guk ordaintzen ditugu asunto horiek.

Jon.**Hau sanjoanak!!**

Egia oteasangoak gure herrisantuko jai nagusiak direla? ez dakit ba... kontzertuetan ia jenderik ez da egon (nahiz eta hori ezin daitekeen inori leporatu) eta jendea bil-



du duen kontu bakarria eskopetereoren eta horrelako kontuak izan dira. pena!! San Joanak parranda egunak ere badira!! baina oztopo asko ditugu, (gazteez ari naiz) etxean parranda lasai egiteko.

Koadrillen egunean (asteburua zen, lanbata, eta festen egun nagusietako bat) kontzertuak limitadoreekin egon ziren, eta noski ez zuten potentzia nahikorik (bizilagunek lo lasai egingo zuten, baina badituzte urteko beste egun asko ere lasai lo egiteko!) eta tarbernak 4ak inguru itxi behar izan zituzten munipak kanpoan zain zituztelako!! Udaletxeko arduradunek zer nahi dute ba? gazteak kotxea hartu eta beste nonbaitera joatea? parrandik ez egitea? dena itxita dagoela kaleetan buila egiten gertatzea!!! Tristeak benetan Tolosako San Joanak gazteentzat.
Tolosar gaztea.

Betizu jatea antolatatu dugu Ugarten

Idatzi honen bidez Ugartear guztioi jakinarazten dizuegu aurreko urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere betizu-jatea antolatatu dugula.

Eguna: UZTAILAK 4, larunbata

Ordua: 14:00etan
Lekua: Ugarteko frontoian
Prezioa: Helduak 30 euro.
Gaztetxoak 15 euro.
Umeak dohainik.

Betizu jatera joateko asmoa duzuenok mesedez aurrez txartela erosi Goikoetxea-enean. Azken eguna txartelak erosteko ekainak



Jesusen Bihotzakoak Oñatin eta Leaburun. HITZA

28 igandea izango da. Animatek!

Ugarteko elkarteko batzordea.**Jesusen Bihotzakoak Arrikutzeko kobetan**

Duela gutxi, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako LH3.mailako ikasleak Oñatin izan ziren egun pasa. Arrikutzeko kobak bisitatzeko aukera ere izan zuten eta txunditurik irten ziren han ikusitako guztiarekin. Halaber, duela gutxi Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleak Leaburun izan ziren egun pasa. Eguraldia lagun zutelaren zoragarria igaro zuten.

Jesusen Bihotza ikastola.**Els Picarols abesbatza Tolosara asteburuan**

Kontzertua:

- Laskorain abesbatza eta Bar-

zelonako Graciako Els Picarols abesbatza.

- Larunbatean 20:30ean Santa Klara komentuan.

- Zuzendariak: Naiara Mintegia eta Laia Jorner

Laskorain abesbatzak eta Barzelonako Els Picarols abesbatzak elkartrukea antolatatu dute. Joan zen maiatzean tolosarrak Barzelonan izan ziren eta asteburu honetan kataluniarrak Tolosan izango dira, Laskoraingo abeslarien etxeetan lotan eta bazkaltzen. Els Picarols Gracia auzoko El Cercle kultur elkartearen

integratuta dagoen abesbatza da, 9 eta 16 urte arteko 26 abeslariz osatua.

Kontzertua emateaz aparte, Tolosa eta Donostia bisitatuko dituzte.

Kontzertua ikustera animatzen zaituztegu, maila ederra emango dute Graciakoek eta!

Laskoraindik.**Zizurkilgo rokodromoaz zer?**

Zizurkilgo udalari zuzendu behar dudala usten dut eta hala hasiko naiz. Kontua da, Zizurkil Goiko frontoian teiltatua konpontzen ari direla eta, frontoiko harmailen azpian eskalatzeko rokodromoa dagoela, inguruko eskalatzailerak guztiok dakigun bezela eta erabili ohi dugun bezela. Teiltatuaren konponketa dela eta eroritako edo botatako eskonbro guztiak lurrean egoteaz gain, rokodromoaren ateara kontra daude. Rokodromoan ezin sartzeaz gain bertako atletik, ia ate goraino daude eskonbroak, atea ere obrek in puskatu egin dute. Hau banekien, eta aurrekoan bertaratu nintzen nola zijuaztin lanak ikusteko eta nire sorpresa izan zen atea ia goraino tapatuta egoteaz gain, atea hautsita zegoela. Atea erdi irekita dago eta ezin imagina dezaket bertara sartuko zen hauts eta zikin guztia obren ondorioz, ez dut uste honekin kontu asko eduki dutenik eta ezta ere obrak bukatzean honen erantzuleak rokodromo garbitzen jarriko direnik. Edo igual bai? galdera egiten diot dago-kionari, igual erratuta nagoelako, baina alde batetik konponketak egiten eta beste aldetik zikintzen eta hausten ibiltzeari ez nioke inongo zentzurik bilatuko. Mese-dez obrak bukatzerako ea rokodromoaz zegoen moduan uzten dezuten.

Herritarra.**Bidegorriak ez dira oinezkoentzat**

Tolosatik bidegorritik maiz ibiltzen naiz bizikletaz, orain udan eguraldi onakin gainera gehiago, eta askotan jendea bertatik ibiltzen da oinez.

Badirudi oraindik jendeak ez duela ikasi zein den bidegorriaren funtzioa.

Kontuz ibiltzeko eskatuko nuke, arrisksutsua izan baitaiteke.

Asier.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Lan talde berria: kirol teknikaria; Asier Martin Usabal kiroldegiko kudeatzailea; Oscar Renedo zinegotzia; Jesus Mari Ortiz eta Aitor Oiarbide. E.E.

Usabal kiroldegiaren jarraipena egiteko lan talde berria prest dago

Kirolak » laz jarri zuten ekimena martxan eta orain jarraipena emango diote beste batzuek; bazkideen ahotsa izatea da helburua.

ESTI EZEIZA

Usabal kiroldegiaren funtzionamenduaren inguruko jarraipena egiteko asmoz, talde berezi bat osatu zen iaz. Aurten ere, egitasmoari jarraipena emateko asmoz, kide berriak ditu lan taldeak. Oraingoan ere Udala, Kirolzer en-

presa eta erabiltzaileek egongo dira ordezkatuta batzordean. Jesus Mari Ortiz, Aitor Oiarbide eta Arantxa Aristondo izango dira bazkideen bozeramaile. Azken hau, klubaren izenean ere mintzatuko da.

Duela urtebete hasi ziren lanean lan taldekoek, erabiltzaileek ikusten zituzten gabeziak aztertzeke, proposamen berriak jasotzeko eta zeuden arazoak konpontzeko. Honen helburua zen, eguneroko martxa aztertzea, erabilpen kexak kontrolatzea eta bide batez, hobekuntzak proposatzea. Hasiera ho-

rretan hartu zen konpromisoa, urtero aldatu egingo zirela parte-hartzaileak, eta orain pasatu diete errelebo berriei.

Hilabetean behin elkartzen dira batzordekoak, eta instalakuntzez ez ezik, ikastarotaz, kirol aktibitatez ezberdinetaz, orduetaz, zerbitzuetaz... hitz egiten dute. Bertan proposatutako hainbat ekimen ere eman dira aurrera. Esaterako erabiltzaileen artean, inkestak egitea, kiroldegia bere osotasunean baloratu zezaten. Bestalde, webgunea sortzearen ideia ere bertatik ateratu zen eta hau martxan dago.

www.usabalkiroldegia.com da helbidea. Beste zenbait «erabaki txiki» ere hartu dituzte: saunaren parean erlojuajartzea, erreklamazioen buzoi bat jartzea eta asteburuko partidak iragartzen dituen panel informatibo bat jartzea gimnasioan.

Jendearen partaidetza eta inplikazioa sustatu nahi dute Udalekoek eta Kirolzer-ekoek lan talde honenkin. Eta batzordea bera ezagutzera eman. Izan ere, Oscar Renedo zinegotziaren esanetan, «garrantzitsua da herritarrek ikustea batzorde hau dagoela, eta be-

raien ekarpenak transmititzeko eta informatzeko daudela». Asier Martinek, Usabal kiroldegiko kudeatzaileak azaldu bezala, batzordeko kideak erabiltzaileen ahotsa dira eta askotan, guk hartu ditugun erabakiak beraien agertzen dizkiegu, eta hauen arazoak eman, ondoren zabaldu dituzten.

Orain arteko arazo nagusiak

Oskar Renedok eta Asier Martinek bat egin zuten esatean, orain arteko arazo nagusia dutxetako uraren tenperaturarena izan dela. Kiroldegia sortu zenetik dagoen kezketako bat da hau, aldaketa handiak egoten baitira hemen. Aldaketa ugari egin dira honen ondorioz, baina erabat konpontzea ez da lortu. Dena den, jakitera eman zutenez, bideratua dago hau ere.

Igerilekuetako uraren tenperatura, kloro kopurua, aldageletako armairuak... ere izan dira hizpide lan taldean, eta Kirolzer-ekoek zerbitzu hauen jarraipen bat egiten dute. Martinek agertu zuen, beraien xedea dela arazoak, erabiltzaileek baino lehenago atzematea, eta konpontzea.

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko, inkesta bat egin zuten erabiltzaileen artean, eta bertan agertutako datuen arabera, bazkideen %90,7a oso gustura dago instalakuntzekin.

Udantartegarenez, taldean hizpide izan den gaitako bat kanpoko igerilekuarena eta solariumarena izan dira. Iaz, kiroldegiko kanpokoaldeko instalakuntzak txikiegi geratzen zirelako, hau handitzea eta zenbait neurri hartzea erabaki zuten. Orain, honekin arazorik ez dela egongo aurreikusten dute. «Nahikoa toki baitago orain bazkideentzat nahiz, egun bakarrerako etorri nahi duten tolosarrentzat» azaldu zuten atzo lan taldeko kideek.

Ekitaldiz betetako 'Uda Gaztea' antolatu du Topaguneak, tolosarrentzako

Aisia » Hilaren 30ean hasiko dira ekintzekin eta uztailla osoan izango da zer eginik; txangoak, tailerrak, filmak eta abar izango dira.

ERREDAKZIOA

Gaztetxo gehienak oporretan daude jada, eta udan aspertu ez daitezzen zenbait jarduerak antolatu ditu Tolosako Gazte Topaguneak. *Uda gaztea* lelopean, henna, fimo eta grafiti tailerrak, futbolarri eta ping-pong txapelketak, Donostiako irlara irteera... egingo dituzte.

Datorren asteartean, hilaren 30ean hasiko dute *Uda gaztea*, eta uztaillaren 24an amaitu. Hasteko Arcachonera (Frantzia) irteera egingo dute. Uztaillaren 2an berriz,



Aurten, lehenengo irteera Arcachonera ur parkera egingo dute. HITZA

Toys filma ikusteko aukera izango da Topagunean bertan, hau da, Kultur Etxe barruan. Honetaz gain, Doma eta Fase artista argen-

tinaren eskutik tailerra izango da. Hurrengo egunean, astea amaitzeko, futbolarri txapelketa izango dute.

Uztaillaren 7an eta 8an Topagunea irekita egongo da, nahiz eta ekitaldi berezirik ez izan. Uztaillaren 9an berriz, Donostiako irlara egingo dute txangoa, eta 10ean, fimo tailerra izango da.

Hurrengo astean, uztaillaren 14an henna tailerra izango da Topagunean, eta 15ean, film bat proiektutatuko dute. Uztaillaren 16an Olaberriara joango dira, bertan, karts-etan ibiltzeko. Hurrengo egunean, karaokea eta merendola izango da. Halaber, asteari larunbatean emango diote amaiera, eta egun pasa Mutrikura joango dira. Han Spraykad-ean ibiliko dira.

Asteburuko atsedendialdiaren ostean, hilaren 21ean berriz zabalduko dituzte Topaguneak. Hurrengo egunean berriz, Lekunbe-

rrira joango dira, abentura kirol ezberdinak egitera. Hilaren 23an Tolosan geratuko dira, eta 24an ere bai. Baina azken egun honetan, grafiti tailerra izango da eta aldirikarregia margotuko dute.

Kanpoko ekintzarik ez dagoenetan Topagunea betiko ordutegian zabalik egongo da. Hau da, 16:30etik 20:30era. Bestalde, ekin-tzen ordutegiari topagunera deituz edo hara joanda jakin ahal izango dira.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbiketak.** Garbiketa orokorra, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Interesatuak deitu inongo konpromisorik gabe, ondorengo telefono zenbakietara: 638 94 46 03 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen).

Bluesaren topagune izango da Tolosa gaur eta bihar gauean

INIGO TERRADILLOS

Atzo ekin zion Tolosandblues jaialdiak, eta ez nolana, Raimundo Amador eta Naco Goñi izan baitziren Plaza Berriko eskenatokia igotzen lehenak. Flamenkoaren eta bluesaren arteko nahasketaren emaitzaz gozatzeko aukera izan zen, beraz. Jaialdi asko du emateko oraindik, izan ere, gaur eta bihar lau talderen zuzeneko entzuteko aukera izango da.

Donostia Udal Musika Eskolako Big Band-a

Gaur bi kontzertu izango dira. Batetik, Fronton kafetegian, 20:00etatik aurrera Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Big Band-a ariko da. Inaki Salvador musikaria sortu zuen 1999. urtean. Musikaren arloko hezkuntza arautuan aitzindaria izan zen taldea. Taldekide guztiak Donostiako Musika eta Dantza Eskolako ikasleak dira. Oso erreperitorio zabala lantzen dute, bluesetik datoreen jazz klasikoa eta beste musika estilo batzuk ere bai: funkya, musikalatinoa, rocka...

Mingo & The Blues Intruders

Bigarren kontzertua 23:30ean izango da, eta Mingo & The Blues Intruders ariko dira Frontonen. Bluesean eskarmentu handia duen Mingo Balaguerrek laukotea osatzea erabaki zuen 2002an. Proiektua garatzeko urtetan lankide izandakoak ondoan izatea ezinbestekoa zuela erabaki zuen, beraiekiko sekretu musikalki izango ez zutenak, Quique Bonal (gitarra), Fernando Torres (baxua) eta Juan de la Oliva (bateria), hain zuzen. Balaguerrek abestu eta aho-soinua jotzen du. Bluesaren arloko estilo ugari lantzen dituzte.

Otis Grand

Bihar ere bi kontzertu izango dira. Batetik, «benetako bluesaren enbaxadore» bezala ezaguna den

Otis Grand ariko da 22:30ean Plaza Berrian. Musikari anglo-libanar hau ez damastilean behatzak astintzen dituen horietakoa, antz handiagoa du B.B. Kingen jotzeko modu ekonomikoarekin (Kingek bere jotzeko moduaren ondorengo aitortu zuen). Hala ere, barrubarruan ditu swingaren eta boogiearen arima. Otis Grandek 25 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du musikan, eta paper garrantzitsua bete du Britainia Handiko blues modernoaren bilakaeran.

Stay Blues

Biharko bigarren kontzertua Stay Blues taldeak eskainiko du, Fronton kafetegian, 00:00etan. Alvaro Fernandez (aho-soinua eta gitarrak) eta Paul San Martin (ahotsa eta pianoa) dira Stay Blues taldearen gidariak. Orain dela hamar urte inguru sortu zuten blues akustikoko proiektu hau. Bikoteak berehala aurkitu zuen hirugarren bidaidea, Fernando Neira (baxua), eta hirukoak Donostia inguruko aretoetan astero jotzeari ekin zion. Karlos Arantze (bateria) kide berriarekin are sendotasun handiagoa erdietsi zuen taldeak. Urrats horiek guztiak eman ondoren, lehen diskoak ezin zuen gehiago itxaron, eta 2007ko udan kaleratu dute. Bluesaren tradizioa birsortu eta kontzertu ugari eskaini dituzte Euskal Herri osoan.

» EGITARAUA

Gaur

■ **Donostiako Musika Eskolako Big Band-a.** Fronton kafetegiko terrazan, 20:00etan.

■ **Mingo & The Blues Intruders.** Fronton kafetegian, 23:30ean.

Bihar

■ **Otis Grand.** Plaza Berrian, 22:30ean.

■ **Stay Blues.** Fronton kafetegian, 00:00etan.



Donostiako Musika Eskolako Big Band gaur ariko da. HITZA



Mingo & The Blues Intruders taldeko kideak. HITZA



Otis Grand da aurtengo Tolosandblueseko izarretakoa. HITZA



Stay Blues taldea Donostiako jazzaldian. HITZA

Minbiziaren Aurkako Elkartek diru-bilketa egingo du bihar

Gizartea » Goizean ariko dira elkarteko kideak; Tolosan egoitza izango du elkartek urte honetan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteko kideak Tolosan izango dira bihar goizean gaisotasunari aurre egiten lagundu ahal izateko diru-biltzen, *Lagundu gaitzazu, lagundu zaitze* lelopean.

Minbiziaren Aurkako Elkartek doan eskaintzen ditu zerbitzuak. Hala, pasa den urtean, esaterako, Gipuzkoako elkartean dauden 1.058 boluntarioren eta 2.365 bazkideren laguntzarekin gaiso ugari artatu ahal izan dituzte. Bestalde, urte honetan zehar Tolosan ere bulegoa izango du Minbiziaren Aurkako Elkartek.

Gerontologikoa «hobetzeko» proposamenak aurkeztuko dituzte bihar

Gizartea » Zahartzaro Duina plataformako kideek proiektua aldatzeko aukera dagoela oraindik diote.

ERREDAKZIOA

Zahartzaro Duina plataformako kideek batzar informatiboa egingo dute bihar 12:00etan, gerontologikoa zaharrean, hau da, Euskal Herriari plazan. «Gerontologikoa berriaren proiektua hobetu asmoz» proposamen aurkeztuko dituzte jendaurrean. Izan ere, diotenaren arabera, «Tolosako Udalak ez du benetako parte-hartzea bultzatzen, beraz, jendea egogera nolakoan den azaltzeko erabakia hartu dugu». Lau proposamen aurkeztuko dituzte.

ASTEASUN SANPEDROAK

San Pedro jai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizuegu herritarroi



Asteasuko Udala

Ekainak 26, ostirala HAURREN EGUNA

10:00: Haurren arteko krosa eta Mairazketa lehiaketa
12:00 - 14:00: Haur Parkea
14:00: Haurren arteko bazkaria
15:30 - 18:00: Haur Parkea
17:00: Haurrentzat: POXPOLO eta MOKOLO pailazoak, «MEKATXIS MARIATXI» emanaldia
20:30:
- Sorginaren Jeitsiera
- Txupinazioa
- Txistulari eta Buruhandiekien kalejira
21:30: HERRI AFARIA Plazan, Ondoren: TRIKUIAI Diskofesta

Ekainak 27, larunbata KOADRILEN EGUNA

10:30: Asteasuko auzeon arteko FUTBOL TORNEOA - Taldeak: Kalea, Elizmendi,

Goiballa eta «Moraleja berria»
14:30: Koadrilen arteko bazkaria
16:00: Gaztotoxen goitiberak Elizmendi
17:00: Mus Txapelketa Herrikoikiak
• Mailak:
- 16 urte arte
- 16 urtetik aurrera
18:00: Zezen txiki eta poneyak
18:30: Helduentzak jokua: kanikak, toka
23:00: LAIOTZ taldearekin erromeria

Ekainak 28, igandea

11:00: PELOTA JAIALDIA
-Esku Pelota Eskolako txapelketako finala: Alebinak
-Infantil mailako pelotarien arteko partidua eskuz
-Aitzondo Txirindulari Elkarteak antolatutako Asteasuko Pala Txapelketaren finala

•Ondoren SAGARDO DASTAKETA
14:30: Koadrilen hauei esker: ABURUZA, ETXEBERRIA, SARASOLA eta ZABALA
18:00: IKUSGARRI taldea: Motozeraz egindako egur lanak
19:00: ERDIZKA LAUETAN taldea: DANTZA Plaza saioa
23:00: IZER eta ALABIER Trikitilarietako erromeria

Ekainak 29, astelehena SAN PEDRO EGUNA

10:00: Diana
11:00: Meza Nagusia
Ondoren Elizmendi: Hamaiketako, Dantza Soka eta Esku pelotako finalak: Aurrebenjaminak eta benjaminak
18:00: Asteasuko eskolak eskeinita: TRIKITIXA Jaialdi plaza
19:00: HERRIKO MUSIKARIEN kalejira
22:30: BERTSO SAIOA Frontoian

•Bertsolariak: Sebastián Lizaso, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jexux Mari Irazu, Unai Iurrigaitza eta Iker Zubeldia
-Gai jartzaileak: Amaia Agirre

Ekainak 30, astelehena JUBILATUEN EGUNA

11:00: Meza. Ondoren Aitzondo Elkartek Herriko Jubilatuei eskentzen dien Hamaiketakoak.
13:00: Herri Kirokalki
-Aizkolariak: JOKIN ALKIZALETE eta JOSEBA OTEAGI // UGAITZ MUGERZA eta ANDER ERASUN
- Harrijasotzaileak: AIMAR IRIGOIEN eta IZETA II
14:30: Jubilatuen Bazkaria. Bertan TELLERIA eta ZEBERIO bertsolariak eta XAPRE eta ZAHARRA trikitilariak arituko dira.
16:00: Herriko Dantzarien emanaldia
19:00: LAKET taldearekin erromeria

Gaur eta bihar, VI. Hitza Txapelketako azken pilotakadak emango dituzte Albizturren eta Tolosako Beotibarren

Pilota » Sari banaketaren ondoren Andres Aramendi omenduko dute, 35 urtez pilotari eskainitako tarte handia eskertzeko.

NEREA URBIZU

Aurtengo Hitza Pilota Txapelketako azken pilotakadak bihar goizean emango dituzte, izan ere finalak jokatuko dituzte gaur-biharretan. Gaur txikien txanda izango da Albizturren. 19:00etan hasiko dira benjaminak, ondoren alebinak eta infantilak aritzeko. Mailla guztieta binaka jokatu dute.

Dena dela, bihar egingo dute sari banaketa Tolosako Beotibarren. Pilota jaialdi honi hasiera emateko emakumeen arteko pala txapelketa bat izango da 10:00etan hasita. Kasu honetan, mailla gorenean dabilzanak gonbidatu dituzte: Emakumea Pilotari Txapelketako txapeladunak, hain zuzen. Uxue Fernandezek eta Ainhoa Montesek osatutako bikoteak Su-Berri taldeko Itsaso Urkizu berastegierra eta Oihana Unanue azpeitiarraren kontra jokatuko du 30era iritsi arte.

Lehen pilotakadak emakumeek Bihar 10:00etan lehen pilotakadak orduan, emakumeek emango dituzte. Ez dira txistulariak faltako jaialdian. Jarraian kadeteen banakako finala izango da ikusgai (11:00ak aldera) eta segidan jubilenen eta 22 urte azpikoan jakatu dituzte, azken hauek binaka izanik.

Norgehiagoka guztiak bukatu ondoren, sari banaketa egingo dute, bertan hainbat herrietako alkateak eta ordezkariak izanik bes-



Aurtengo finalak iragartzeko kartelean finalean ariko direnen argazkiak ere ageri dira. HITZA

teak beste, denen artean aurtengo 22 pilotari onenak saritzeko asmoz. Honekin bukatuta, Andres Aramendi ibartarra omenduko dute.

Andres Aramendiri omenaldia

35 urte igaro dira Andres Aramendiri pilotaren alde lanean hasi zenean, Beotibarren behintzat. Aurtur jubilatuta egiten da, baina jubilatuta izan ez balitz ere, Aurrera-Saiazek omendu egin nahi izan du Aramendi, 35 urte horiengatik. Epailan lanetan 20 urte inguru egin ditu eta 35 urte, lehenengo Aurrera pilota eskolako arduradun bezala, eta ondoren Aurrera-Saiazkoa (Luis Galarragarekin).

Aurrera-Saiazek Aramendi omendu nahi izan du lan honengatik

beste, denen artean aurtengo 22 pilotari onenak saritzeko asmoz. Honekin bukatuta, Andres Aramendi ibartarra omenduko dute.

Dagoeneko sei urtez

HITZA egunkaria sortzearekin batera Hitza Pilota Txapelketa abiarazi zuten. Bertatik gaur egun profesionalak diren pilotariak ere igaro dira: Belloso, Garmendia, Olaetxea, Ugarte, Apraiz, Iza...

VI. Hitza Pilota Txapelketan sei mailatako partidak izan dira eta hauek bost pilotalekutan jokatu dira: Berastegin benjaminak, Albizturren alebinak, Adunan infantilak, Bidanian kadeteak eta Tolosan jubenilak eta 22 urte azpikoak. Herri hauetako Udalak izan dira txapelketako laguntzaileak, Eroski, Eredu, Epikristaleria, Diva pen-

» FINALEKO PILOTARIAK

- **Benjaminak.** Salaberria-Zinkunegi eta Bergantinos-Zubeldia.
- **Alebinak.** Peña-Egiguren eta Zubeldia-Urdanpilleta.
- **Infantilak.** Mujika-Iruretagoiena eta Larrea-Iribarria.
- **Kadeteak.** Jaka eta Ariztimuño.
- **Jubenilak.** Urbieta-Zinkunegi eta Ezkurdia-Lukin.
- **22 urte azpikoak.** Azpiri-Madariaga eta Telletxea-Mitxelena.

tsuak, Reviglass, Laex, Fronton jattetxea, Aralar Kiroiak, Calcinor, Ernio sukaldeak eta Orvi grafikak.

Finala jendea joatea ere espero dute, orain arte ikusi ahal izan diren partidak «gustura» ikusi badituzte, oraingoak are gehiago.

Bidegorriaz eta saneamenduaz ariko dira

Amezketak » Bi proiektuen inguruko informazio gehiago emango dute datorren asteartean, Foru Aldundikoak gonbidatuta.

ERREDAKZIOA

Datorren astean, asteartean zehazki, Amezketan bidegorriari eta saneamenduko proiektuari buruzko bilera izango da, Udalak deituta.

Dirudienek, Amezketako herri-gunetik Ugartera bidegorria egingo dute. Horrez gain, saneamen-



Bidegorria Tolosaldeko herri askotan dago jada. Irudian Alegiakoa. N. URBIZU

duko proiektuaren aurkezpena ere egingo dute asteartean.

Bilera ireki hau 20:30ean izango da asteartean (hilak 30), Amezketako balioaitzeko gelan. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Saileko gehi Garapen Iraunkorrek teknikiari izango dira. Kasu honetan proiektuaren inguruko azalpen guztiak emateko eta herritarrek dituzten zalantzak argitzeko bertaratu dira Amezketara.

Bidegorria egingo aukera nahiko erraza ematen du Ugartertik Amezketarainoko bidea, errepide zabal baitago orokorrean.

Laburrak

Quebrantahuesosen Tolosaldeko 84 aritu dira

ORENDAIN » Joan den asteburuan XIX. Quebrantahuesos txirriindulari proba izan zen eta bertan Orendaingo Argoitz Lizarribar Etxaidek ere parte hartu zuen. 7.402 dortsalarekin 3.773. postuan bukatu zuen proba, 7 ordu 57 minutu eta 57 segundoko bukatuta. Beraz, Orendaingo bi lagun atara ziren larunbatean: Argoitz Lizarribar alde batetik, eta Igor Aranburu bestetik. Tolosaldeko 84 lagun atara ziren, hortaz.

Txekorraren zozketan 115 zenbakia izan da saritua

ABALTZISKETA » Abaltzisketako festetan txekor bat zozketatu zuen Txalburu eskolako horretarako boletoa salduz. Bada, zozketa egin dute eta saria jasoko duen zenbakia 115 izan da. Eskolako jakinarazi duenez, irabazleak 15 euro izango ditu txartelean agertzen den telefono zenbakira deitzeko edo Abaltzisketako baten batekin harremanetan jartzeko eta honela saria jasoko du. Urte asko daramatza eskolako txekorra San Joan jaietan zozketatzen.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbolak: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldea bus: 943 650621
Leitzaran autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474



100 abestien letrak biltzen dituen liburuxka aurkeztu zuten atzo, Tolosa Kantariko talde bultzatzaileak. R. CALVO

Urtebete egingo du bihar Tolosa Kantari ekimenak

Tolosa » Urtebetzearekin batera 100 kantu ingururen letrak biltzen dituen liburuxka kaleratu dute; bost euro balio du.

ERREDAKZIOA

Bihar beteko du urtebete Tolosa Kantari ekimenak. Denbora honetan guztian hilero bildu dira «kaleak alaitzeko eta ohitura zaharrak mantentzeko» eta noski, eurek ere kantuan gozatzeko. «Euskaldunak baino ez gara, euskal lagunartean gustura ibiltzen direnak eta euskal kantak abestea gogoko dutenak», argitu zuten zentzu honetan atzoko agerraldian.

Urte bete ospatzeko herri bazkaria egingo dute bihar Abastos plazan «eztarriak egurdian berotu ondoren arratsaldean ere kantuan jarraitzeko». Honetaz gain hileko hitzordua ere izango dute bihar; 12:00etan bilduko dira Ton-

tokalen kantuan aritzeko. Hori bai, oraingo honetan, berrikuntzarik izango dute; atzo aurkeztu zuten kantu sorta. Izan ere, azken urte honetan ekimenak indarra hartu du eta «behar praktikoak somatzen ere» hasi dira. «Hasiera batean lagun eta boluntarioen lanari esker, paperezko liburuxkak banatzen genituen hurbiltzen zirenen artean, baina larunbatetako hitzorduak gero eta jendetsuago-

Herri bazkaria egingo dute bihar, Abastosen, hileko ohiko hitzordua bukatu eta gero

ak ziren eta beste zerbait pentsatu beharra zegoela konturatu ginen», nabarmendu zuten.

Liburuxka

Atzo aurkeztutako libururuxkak 100 bat kanturen letrak biltzen ditu eta 5 euroren truke salduko

dute. «Aukeraketa eta txukunketa lan luzearen emaitza» da kantusortak eta Tolosako hainbat elkarteren laguntzarekin kaleratu dute; Amaroako Auzo Elkarteak, Emendek, Ero-Etxe, GiroArte dultzaina taldea, Gure Kaiola, Izaskun, Lizardi, San Esteban eta San Blas.

«Bertan bildu ditugu gure inguruko kanturik ezagunenak eta baita beste probintzietako hainbat abesti ere; euskal kultura Euskal Herri osokoa baita», nabarmendu zuten. «Doinurik ezagutzen ez baduzue guregana hurbildu beharko duzue hileko azken larunbatetan!», esan zuten.

Era berean, aurkezpena bukatu aurretik euskal kultura bultzatzearen alde lanean jarraituko dutela ere argitu zuten: «Kultura, zuhaitz baten antzekoa da, sustaiak iraganen dauzka, eta hostoak berriz orainean. Geure esku dago kimu berriak sortzea, etorkizunean loratu daitezzen».

Horrela bukatzeko laguntza eman dieten guztiei euren esker ona azaldu zieten: «Elkarteak, urtean zehar parte hartu duten musikariak —Inaki Letamendia eta Txistulari Banda, Udaberri dantza taldeko musikariak, GiroArte dultzaina taldea, Txepel aita-seeak trikitilariak, Koldo Tarragona akordeolaria, Konponezinak musika taldea, Bonberenea txaranga, Irati eta trikitilari gazteak—, zuzendari lana egin dutenak —Joakin Artetxe, Marisa eta Ebaristo El-duaien—».

Horiek horrela herritar guztiak animatu nahi izan zituzten Tolosa Kantari kantujiran parte hartzera.

Aforalekua eta arraintzako arrapala egingo dute Araxesen

Lizartza » Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu berri du Insaluseko ubideko proiektua.

ERREDAKZIOA

Araxes ibaian, Insaluseko ubidean, aforalekua eta arraintzako arrapala egiteko proiektua onartu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak. Herri erabilerakotzat jo dituzte instalazio hauek. Foru Aldundiak badauka Gipuzkoako ibaien ur emaria eta kalitatea neurtzeko aforaleku sarea. Aforalekuak plangintza eta kudeaketa hidrologikorako eta Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen aurkako alarma eta prebentzio sarearen oinarri gisa erabiltzen dute. Honekin batera, jarduerara programa bat garatzen ari dira ibaietako oztopoen inguruan, arrainei pasabidea uzteko.

Araxes ibaian, ordea, aforalekuri ez egoteaz gain, ubidea dago, «oztopo pasaezina», alegia, eta horregatik egingo dute aforalekulan bakarrean. Lan hauekin sortzen den irtengunea baliatuko dute, gainera, arraintzako arrapala bat egiteko, hartara ubidea arrainak pasatzeko modukoa izan dadin.

Foru Aldundiak Ikaur SL enpresaren ardurapean utzi zuen proiektua idaztea. Proiektuan aforalekua nola egin behar den zehaztu dute eta triangulu formako isurbide bat izango duela ere argitu dute. Isurbideak ur etorria baretuko du eta ibaitik pasatzen den ur emaria ere neurtuko du. Era berean, harri-lubeta arrapaladun bat egiteko asmoa dute, %5eko malda eta 40 metroko luzera izango dituen.

Proiektuko lanek lur atxikipen berriak dakartzatenez, proiektua onartzeko egin behar diren legezko eta jendaurreko informazio izapideak hasiatek erabaki dute.

Volvo Ocean Race txapelketako azken etapa hasi zuten atzo

Ibarra » Xabi Fernandez ontzia, Telefonica Azul izenekoa, sailkapen orokorreko hirugarren postuan dago.

ERREDAKZIOA

Zortzi hilabete eta gero atzo hasi zuten Volvo Ocean Race bela txapelketako azken etapa, Estocolmotik San Petersburgora doana, hain zuzen.

Etaparik motzena da eta erru-siarek modu sinbolikoan hartuko

dute parte, segurtasun probak pasa ez dituztelako. Xabi Fernandez ibartarrak, Iker Martinezek, Jordi Calafat, Pablo Arrartek eta Pepe Ribesek osatzen duten Telefonica Azul ontziak oso irteera ona egin zuten atzokoan, nahiz eta ondoren, Puma taldeak hartu zion aurrea.

Hirugarren postuan daude Telefonica Azulekoak

Oraingoz sailkapen orokorrean Ericsson 4 taldea da buru, bigarrena Puma da eta hirugarrengok dira Telefonica Azulekoak.

Laburrak

Langostinoren urteko bosgarren irteera

IBARRA » Igandean izango dute Langostino Moto Elkarteak urteko bosgarren irteera. 09:30ean aterako dira Ibarroko plazatik eta Azpeitiaruntz joango dira, bertan egingo baitute hamaiketako. Parte hartu nahi dutenek sei euro ordaindu behar ditzute eta aurretik eman behar dute izena langostinomotofesta@gmail.com helbidean edo 630784213 telefonoan.

Bartolo Jaien aurkezpen prentsaurrekoa, gaur

IBARRA » Ibarroko Bartola Festa Batzordeko kideek datorren abuztoko Bartolo Jaien aurkezpena egiteko gaur 19:00etan herriko plazan prentsaurrekoa egingo dutela jakinarazi nahi die ibartar guztiei. Prentsaurrekora puntual azaltzeko eskaera ere luzatu nahi du hileko azken ostirako presoan enkar-telada ondoren, 19:30ean, izango da-eta.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Amazabal Institutuko azken urteko ikasleak Leitzako errekek garbitzen aritu ziren atzokoan. Bihar Mallorcara doaz ikasbidaian eta laguntza guztiak estimatuak dituzte.

Auzolanean zerbaiten alde

ASIER IMAZ

Leitzak horrenbeste merezi duelako edota Mallorcak laguntzen duelako; kontuak kontu, Amazabal Institutuko ikasleak, DBH 4. mailakoak, errekarara jaitsi ziren atzokoan.

Mallorcara astebeterako

Amazabal Institutuko azken urteko ikasleek ikasturte amaierako bidaia egingo dute Mallorcara (Herrialde Katalanak). Bihar abiatuko dira, hurrengo larunbatean itzulteko.

Azken urtean poltsikotik dirua jartzeaz gain, ekimen desberdinak antolatu dituzte bidaiaren kostua ahalik eta gehien murrizteko: «Jaietan postuak, taberna eta abar jarri genituen. Horretaz gain kamisetak ere ateratu genituen».

Atzokoan Erasote eta Leitzaran errekan ibili ziren, garbiketa lanean. «Urtero eskatzen zaio laguntza udaletxeari. Guk auzolana eskaintzen diogu eta eurek zer egin dezakegun esaten digute. Lehenengo urtekoan ikasleak posteak pintatzen eta zuhaitzak landatzen ibili ziren. Guri errekek garbitzea tokatu zaigu».

Goizean goiz hasi ziren fin lanean. Talde desberdinetan antolatuta ondoren, 08:30ean errekarara jaitsi ziren. Noiz amaituko zuten ziur ez baldin bazekiten ere, egun bateko lana aurreikusten zuten. Horrela izan ezean, gaur ere garbiketa lanean ibiliko dira: «Bizikletak, komuneko tazak, lixiba poteak, azulejoak, plastikoak, txapak... Zikin-keria dezente jasotzen ari gara.

Garbia dagoela dirudi baina zuhaitz artean hondakin asko pila-tzen da».

«Garbiagoa eta politagoa»

Leitzako errekek ahaztu eta Mallorcako hondartzetan atseden hartzeko aukera izango dute bihartik aurrera leitzarrek. Ikasbidaia horretarako baita: «Parranda bota, hondartzan etzanda egon, akuaparkera joan...».

Mallorca nolatan aukeratu duten galdetuta, DBH 4. mailako ikasleek aukera handiegirik ez zutela aipatu dute: «Europatik bidaia egin nahigenuen baino asko garestitu da. Tenerifera joatea ere garesti irteten zitzaigun. Merkeena Mallorca ateratzen zitzaigun eta orduan hara».

Merkeena ikasle batentzat beti garesti izan ohi da. Erreka garbitzen aritzeko arrazoi bat hori izan daiteke beraz. Hala eta guztiz ere, ekintza honen beste esanahia ez zaie arrotz: «Horrela politagoa ikusten da, garbiagoa». Urtero egiteko prest zaudete orduan, ezta? «Hurrengo urteko ikasleei ere zerbait utzi beharko zaie. Hau ideia ona da, alde batetik dirua ateratzen duzu eta bestetik goiza ongi pasatzen duzu: barre batzuk botaz, uretan, batzuk putzura ere erori dira...».

Gauza guztiak izaten dute bere ikasgaia. Hori eskatuta ondorengo bota dute: «Ez dela deus bota behar errekarara». Noski, bada beste irizpiderik ere, nahiz eta marmarrean esandakoa izan: «Jendea oso zerrria dela».



Amazabal Institutuko ikasleak, DBH 4. mailakoak, Leitzaran eta Erasote errekek garbitu zituzten atzo. A. IMAZ

Azken ostiraleko elkarretaratzeak gaur

Politika » Asteasun San Pedro jaien hasiera ere gaur denez, 20:00etan kalejira berezia egingo dute.

A. IMAZ

Tolosaldean eta Leitzaldean azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dituzte gaur ohiko ordu eta lekuetan.

Asteasun ekimen berezia egingo dute, izan ere bihar hasiko dira bertan San Pedro jaiak. Hilabeteko



Azken ostiralean, gaur, ohi bezala elkarretaratzeak egingo dituzte. L. MONTES

azken ostiraleko ohiko elkarretaratzearen ordez, «Euskal Preso eta Iheslari politikoen aldeko kalejira berezia» egingo dute 20:00etan herriko plazatik hasita. Herritar guztiak bertan parte hartzeko eskatu diete.

Anza eta presoan argazkiak

Hilabete honetan «Jon Anzaren desagerketa eta euskal preso politikoen argazkien aurkako erasoak» salatuko dituzte. Horretaz gain, herrialde bakoitzeko presoan azken egoeraren berri emango dute elkarretaratzeetan.

» ELKARRETARATZEAK

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketak. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leiza. 20:00etan Lopeneko iturrian.
- Lizartza. 20:00etan.
- Orendain. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Tolosa.** Uztailaren 4ean eta Sean Pirinioetara iteera antolatuta du Alpino Uzturre, Ardiden (2.988m) eta Bernat Barrau (2.793 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).
■ **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika uztailaren 12an 10:30ean (7 km) Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lotu eginez eta otorduak jatetxeetan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Lus M.) telefono zenbakietan.
■ **Tolosa.** Tolosa Kantari egitasmoak urtebete beteko du eta bazkaria egingo dute 27an 14:30ean, abestu ondoren, Abastos plazan. Txartelak salgai Xirimiri, Laier, Elurra eta Amarotzeko Ekaitz tabernetan 25 eurotan.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosandblues: Donostiako Musika Eskolako Big-Banda 20:00etan eta Mingo&The Intruders 23:30ean Fronton kafetegian.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan hila-bete osoan zehar herriko argazki zaharren erakusketa dago ikusgai, asteartetik igandera bitarte. Jendea zein lekuak daude islatuta.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Soldadura, mekanizatua (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatuta ditu Peñascal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordukoak (500 orduko praktikak). Izen-ematea, fundazioan (Usabal industriagunean).
■ **Tolosa.** TAKek arraun ikastaroak antolatuta ditu hiru hamabostalditan: bi uztailaren eta bat abuztuaren. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Alegia zaharra irudietan

Alegia » Herritarrek utzitako argazki zaharrak bildu zituzten argazkizaleen elkartekoek, ikusgai jartzeko.

NEREA URBIZU

Alegiako jubilatuen tabernan duela gutxienez 50 urteko Alegiako ikuspegiak eta jendea ikus daitezke. Alegiako argazkizaleen taldeak bildu ditu argazki hauek, herritarrek emandakoak dira ia denak eta handitu egin dituzte hobeto ikusiteko.

German Intxaustirenak dira gehienak eta baita bere aita Ricardo zenarenak. Zaharrenak 100 bat

urte izango ditu, Amezketara joateko bidea plazatik igarotzen zeneko bat ikusten da, adibidez. Pertsona batzuk ezagutzeko errazak dira, duela 50 urtekoak baitira batzuk.



Ezkerrean plazan festetan, Amezketarako bidea erdian: 100 urte inguru dauzka. Eskuinean, Kukurruku zena Tontokaleko harrian eserita. HITZA / PATXI RENOBALES

A Agurrak



Zorionak!

Gaur aitak eta bihar semeak. Muxu handi bana familiakoken partetik.



Urte askoan!

Izadi Otamendi. Gaur 6 urte. Zorionak *bitxito* ondo pasa gaurko eguna eta txintxo ibili. Maialen, Laiene eta etxekoan partetik.



Urte askoan!

Unai Arrieta Kortajarena (Amasa). Gaur 6 urte. 6 muxu potolo familiaren partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa